Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

LIZTOR BELTZAREN AURKAKO PROTOKOLOA

GIPUZKOA

BERRIKUSPENA: 2019ko Iraila

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

LIZTOR BELTZAREN AURKAKO PROTOKOLOA

GIPUZKOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA 3
2. LIZTOR BELTZAREN ZIKLO BIOLOGIKOA 4
2.1. LEHEN HABIAK 5
2.2. BIGARREN HABIAK 6
3. PROTOKOLOAREN FUNTZIONAMENDUA ETA ERAGILEAK 8
3.1. FLUXUGRAMA 8
3.2. PROZEDURA 9
3.3. EKITALDIAREN HASIERA 9
3.4. ERAGILEAK 10
3.4.1. Udalak 10
3.4.2. Landa Garapen Elkarteak 10
3.4.3. Suhiltzaileak 11
3.4.4. Basozainak 12
3.4.5. Gipuzkoako Foru Aldundia 12
3.5. NEKAGIP WEB ORRIKO "LIZTOR BELTZA" APLIKAZIO INFORMATIKOA 13
3.6. LIZTOR BELTZAREN ZIZTADAK 13
3.7. EKITALDIAREN BUKAERA 14
4. HABIAK DESAKTIBATZEKO METODOAK 15
4.1. LEHEN HABIAK DESAKTIBATZEKO METODOAK 15
4.2. BIGARREN HABIAK DESAKTIBATZEKO METODOAK 16
4.2.1. Haga edo pertika 16
4.2.1.1. Metodoari buruz 16
4.2.1.2. Materiala 16
4.2.1.3. Prebentziozko neurriak 17
4.2.1.4. Prozedura 20
4.2.2. Aerosolean erabilitako biozidak 20
4.2.2.1. Metodoari buruz 20
4.2.2.2. Materiala 20
4.2.2.3. Prebentziozko neurriak 21
4.2.2.4. Prozedura 21
4.2.3. Tirokatu 21
4.2.3.1. Metodoari buruz 21
4.2.3.2. Materiala 23
4.2.3.3. Prebentziozko neurriak 23
4.2.3.4. Prozedura 24
4.2.4. Metodo berriak 24
5. TRANPAK 25
5.1. UDABERRIKO ERREGINEN TRANPAK 25
5.1.1. Eskaera baldintzak 25
5.1.2. Beste baldintzak 27
5.1.3. Gailuak 28
5.1.4. Erakargarriak 28
5.2. UDA ETA UDAZKENEKO LANGILEEN TRANPAK 28
5.3. HABIA TIROKATU ONDORENGO TRANPAK 29

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: LIZTOR BELTZAREN KARTELA

2. ERANSKINA: LIZTOR BELTZAK ERAGINDAKO ZIZTADA FITXA

3. ERANSKINA: LEHEN HABIAK NOLA KENDU EDO DESAKTIBATU

4. ERANSKINA: BIOZIDAK

5. ERANSKINA: PERTIKAK / PONPA BULTZATZAILEAK

6. ERANSKINA: JANTZIAK

7. ERANSKINA: LIZTOR BELTZAREN ERREGINAK HARRAPATZEKO TRANPEN FITXA

8. ERANSKINA: TRANPAK

9. ERANSKINA: ERAKARGARRIAK

1. SARRERA

Liztor beltza edo asiarra (*Vespa velutina* ssp. *nigrithorax*) intsektu exotiko inbaditzaileari aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak; Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuak eta Gipuzkoako Erlezain Elkarteak (GEE), Udal eta Landa Garapen Elkarteen (LGE) eragile batzuekin batera, liztor beltzaren aurkako Protokoloa prestatu genuen, 2015. urtean.

Ondoren, lehen berrikuspena egin genuen 2017. urtean, habiak desaktibatzeko erabiltzen diren metodoei prebentzio neurriak gehituz. Eta orain, lan Protokoloaren bigarren berrikuspena aurkezten dugu.

Liztor beltzari aurre egiteko jardunak gune urbano zein ez urbanoetan egingo dira.

Lekuan lekuko eragileek erabakiko dute protokolo honetan esaten dena bururaino eramatea ala ez.

Protokoloa eta bere Eranskinak Nekagip web orriko “Liztor beltza” aplikazio informatikoaren “Laguntza” atalean eskuragarri daude.

Eragileak, jarduten duen eremuan herritarrari informazioa eman nahi badio (eskoletan, parkeetan, kalean, etab.) ikusi 1. ERANSKINA: LIZTOR BELTZAREN KARTELA.

2. LIZTOR BELTZAREN ZIKLO BIOLOGIKOA

Irailetik aurrera, ar eta erreginen **estalketa.** Ernaldutako erreginak **sakabanatzen** doaz.

Negurako **kolonia hilda** eta **habia hustuta.** **Erregina** ernalduak negua aterpean gordeta.

Udara bukaeran, **habia handitzen**. 1.700 **langile** egon daitezke.

Otsail-martxoan erreginak irten. **Fundatzaileak** elikatu, lehen habia egiten hasi eta **arrautzak** jarri.

Uztailetik aurrera, agerikoa da **bigarren habia.** **Langileak** ugarituz doaz.

Apiril-maiatzetik aurrera, agerikoa da **lehen habia.** **Langileak** sortzen dira.

Informazio gehiago izateko, eskuratu Nekagip web orriko “Liztor beltza” aplikazio informatikoaren “Laguntza” ataleko “*Kudeatzeko gidaliburua*”.

2.1. LEHEN HABIAK

Ernaldutako erreginek, babestutako zulo eta barrunbetan gordeta pasatzen dituzte neguko garai zailenak. Bizirik irauten dutenek (fundatzaileek), udaberri hasieran, eguraldi ezaugarriak aldatzen direnean, elikatu bezain laster lehen habia (primarioa) egiten hasten dira eta zeregin honetarako material eta elikagai bila ibiltzen dira batetik bestera.

Lehen habia, liztor beltzaren zikloan, erreginak sortuko duen lehen egitura da; erreginak arrautzak jarriko ditu bertan eta hauetatik sortuko diren larbei elikagaiak eman ondoren, garatuz joango dira lehen intsektu heldu talde txikia izatera ailegatu arte (langileak). Zikloaren zati hau martxotik maiatzera bitartean gertatuko da eta eguraldiaren arabera gertakizunak aurreratu edo atzeratu egingo dira.

Erreginek lehen habia eraikitzeko leku babestuak hautatzen dituzte, sarritan pertsonen inguruko eraikin eta instalazioak (biltegiak, txabolak, teilatu azpiak, zoru eta hormetako zuloak, etab.) eta baita lurzorua eta zuhaitzak ere. Ura nahiko gertu izatea behar dute.

Lehen habiak apiriletik maiatzera bitartean bistaratuko dira; eguraldiaren arabera habien agerpena aurreratu ala atzeratu egingo da. Habia primarioak zelulosa pasta (zuhaitzen azala eta liztorren txistuaren nahasketa) geruzaz osatuta daude eta sarrera azpialdean dute; neurriz eta intsektu kopuruz txikiak direnez, baliabide gutxi batzuk erabiliz desaktibatu ditzakegu sarritan.

Kontutan izan behar da liztor beltza eguneko intsektu espeziea dela, hau da, egunez aktibo dagoela eta gauez habia barruan mantentzen dela; beraz gauez edo eguzkia atera aurretik kendu behar dira erregina bertan dagoela ziurtatzeko. Erregina kanpoan dabilela kentzen badugu habia, beste bat egiten hasiko da.

2.2. BIGARREN HABIAK

Liztor beltzaren ziklo biologikoari jarraituz eta eguraldiak baldintzatuta, lehen habian jaio den intsektu talde txikiak, gehienetan habia uzten du eta bigarren toki batean beste habia bat eraikitzen hasiko da, normalean leku altuagoetan eta bereziki zuhaitzetan. Bigarren habia hau behin betikoa izango da. Habia etengabe handitzen jarraituko dute liztorrek (habia helduaren altuera metrotik gorakoa eta metro erdiko zabalera baino gehiagokoa izatera ailegatu daiteke) eta erregina, era berean, ehunka arrautza jartzen ariko da; habia 1.700 intsektu edukitzera ailegatu daiteke bere une garatuenean. Habia sekundarioak zelulosa pasta geruzaz guztiz estalita daude, normalki forma obalatua dute (arrautza itxurakoa) eta sarrera bakarra, zulo borobil eta txikia, aldamenean dago, nahiko behean.

Ziklo biologikoaren etapa honetan, liztorrek elikagaien behar handia dute, karbohidratoak eta proteinak batez ere; hortik datoz sortzen dituzten kalte ikaragarriak (beste intsektu espeziengan, fruituengan, etab.).

Liztorren populazioa eguraldiari lotuta dago; halaber, liztorrek sortzen dituzten kalteak handiagoak dira liztor populazioa handitzen den heinean. Liztorren erasoak uztailean hasten dira, abuztua, iraila eta urria dira garai gogorrenak, eta ia abendura arte irauten dute.

Liztorren populazioa habian aldakorra da. Azarotik aurrera, eguraldia hozten joaten den heinean, habian dauden larba zein intsektu kopurua jaisten joaten da.

Irailetik aurrera liztor arrak emeak ernaltzen hasten dira eta etorkizuneko ehunka erregina sakabanatu egiten dira. Negua babesean ezkutatuta bizirik igarotzea lortzen duten eme ernalduak dira hurrengo urtean espezieari jarraipena emateko erregina berriak izango direnak (fundatzaileak). Habiako beste liztorrak (erregina zaharra, azken larbak, langileak eta arrak) hil egiten dira eta hustutako habia ez dute berriro erabiliko.

3. PROTOKOLOAREN FUNTZIONAMENDUA ETA ERAGILEAK

3.1. FLUXUGRAMA



3.2. PROZEDURA

1/ Udalak, herritarraren deia jaso ondoren, habia ikusiko du. Bertan, habiaren datuak jasoko ditu. Kokalekuak dituen ezaugarrien arabera eta Protokoloaren irizpideak kontutan izanda, habiaren desaktibatzea ze eragileri dagokion erabakiko du. Kontutan izan herritarren batek SOS DEIAK-112ra, Suhiltzaile Parkera edo beste erakunde batera deitzen badu, abisua udalari emateko esango zaiola.

2/ Udalak, Nekagip web orriko "Liztor beltza" aplikazio informatikoan jarduna irekiko du:

2.1/ Udalaren berezko baliabideak nahikoak badira habia desaktibatzeko, aplikazio informatikoan jasotako datuak sartuko ditu eta bere baliabide propioekin gertakaria kudeatuko du. Habia desaktibatu bezain laster aplikazioan jarduna osatu eta itxiko du.

2.2/ Udalaren berezko baliabideak nahikoak ez badira habia desaktibatzeko, baino Landa Garapen Elkarteak egitea badauka, Udalak aplikazio informatikoan jasotako datuak sartuko ditu eta Landa Garapen Elkarteari eskaera egingo dio, beharrezko datuak emanez. Landa Garapen Elkarteak habia desaktibatuko du eta lan horretarako Udalaren laguntza eskatu dezake. Habia desaktibatu bezain laster aplikazioan jarduna osatu eta itxiko du Udalak edo Landa Garapen Elkarteak.

2.3/ Udalaren eta Landa Garapen Elkartearen baliabideak nahikoak ez badira habia desaktibatzeko eta Protokoloaren irizpideak kontutan izanda Suhiltzaileek egitea badaukate, Udalak aplikazio informatikoan jasotako datuak sartuko ditu eta aplikaziotik mezu bat bidaliko die Suhiltzaileei. Suhiltzaileek, bere kasuan, habia desaktibatuko dute eta lan horretarako Udalaren laguntza eskatu dezakete. Habia desaktibatu bezain laster Suhiltzaileek aplikazioan jarduna osatu eta itxiko dute.

2.4/ Udalaren eta Landa Garapen Elkartearen baliabideak nahikoak ez badira habia desaktibatzeko eta Protokoloaren irizpideak kontutan izanda Basozainek egitea badaukate, Udalak aplikazio informatikoan jasotako datuak sartuko ditu eta aplikaziotik mezu bat bidaliko die Basozainei. Basozainek, bere kasuan, habia desaktibatuko dute eta lan horretarako Udalaren laguntza eskatu dezakete. Habia desaktibatu bezain laster Basozainek aplikazioan jarduna osatu eta itxiko dute.

3.3. EKITALDIAREN HASIERA

Udaberrian, urteko eguraldiaren arabera eta eragile ezberdinekin hitz egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuak, ekitaldiaren hasiera ofiziala jakinaraziko du, Nekagip web orriko "Liztor beltza" aplikazio informatikoa martxan jarriz.

3.4. ERAGILEAK

3.4.1. Udalak

Udalak bere Udalerriaren esparruan eskainiko du zerbitzua eta jardunak gune urbanoetara eta ez urbanoetara zabalduko dira. Zerbitzua berezko baliabideekin emango du: brigadak, boluntarioen taldeak edo enpresak.

Herritarrak habia bat aurkitzen duenean komunikazio deia beti Udalari egin behar dio.

Landa Garapen Elkarteek, Suhiltzaileek eta Basozainek habiak desaktibatzeko garaian Udalaren laguntza eskatu dezakete.

Nekagip web orriko “Liztor beltza” aplikazio informatikoan habiaren jarduna beti Udalak irekiko du. Habia Udalaren berezko baliabideekin desaktibatzen bada, jarduna osatu eta ixtea Udalaren ardura izango da.

3.4.2. Landa Garapen Elkarteak

Landa Garpen Elkarteek bere eremua osatzen duten herriei eskainiko diete zerbitzua eta jarduna gune urbanoetara zein ez urbanoetara zabalduko da. Zerbitzua berezko baliabideekin emango dute: brigadak edo enpresak.

Landa Garapen Elkarteek habiak desaktibatzeko garaian Udalen laguntza eskatu dezakete.

Habia Landa Garapen Elkartearen berezko baliabideekin desaktibatzen bada, Nekagip web orriko “Liztor beltza” aplikazio informatikoan jarduna osatu eta ixtea Landa Garapen Elkartearen edo Udalaren ardura izango da, elkarrekin hitzartutako akordioaren arabera.

3.4.3. Suhiltzaileak

Suhiltzaileei ez dagokie, egoera normaletan, 15 m baino gutxiagoko altuerara kokatuak dauden habiak desaktibatzea. Beraz, Suhiltzaileen parte hartzea, ondorengo kasuetara mugatuko da:

1/ Larrialdi gisa katalogatzeko baldintzaren bat betetzen denean:

1.1/ Ezin dira habiak desaktibatu lurretik, esku eskaileretatik edo udaletako zerbitzu, brigada edo bestelako eragileen eskura dauden makinetatik (garabiak, plataformak …), eta ez denean gomendagarri beste metodo batzuk erabiltzea (tiro, tranpak, etab.), bai habiak eraikin edo instalazioetatik gertu daudelako, bai ingurunean izan daitezkeen nahi gabeko eraginak gehiegizkoak direlako.

1.2/ Premia handiz desaktibatu behar delako, kontuan hartuta kokalekua, jarduera, osasunerako dagoen arriskua edo dagoeneko herritarrek jasandako eraginak.

1.3/ Kontuan hartuta habiaren edo inguruaren ezaugarri bereziak, babeserako neurri bereziak hartu behar direnean (tentsio elektrikoa, eroanbideak, erregaien biltegiak, etab.).

2/ Eta sarbide ona duen ingurunean daudenean, betiere ingurune horrek honako ezaugarri hauek dituenean:

2.1/ Ez da oztoporik izango eskailera kamioa lanerako baldintzetan berehala jarri ahal izateko eta, halaber, bermatu egin beharko da baliabideak jaso eta beste esku hartze batera joan ahal izango direla gehienez ere 5 minuturen barruan.

Beraz, habiak desaktibatzeko ardura duten eragileek, beraien baliabide propioekin habia ezin dutenean desaktibatu, Suhiltzaileek parte hartuko dute esandako baldintzak betetzen badira.

Suhiltzaileek habiak desaktibatzeko garaian Udalen laguntza eskatu dezakete.

Suhiltzaileek habia bat desaktibatzen dutenean, Nekagip web orriko “Liztor beltza” aplikazio informatikoan jarduna osatu eta itxiko dute.

3.4.4. Basozainak

Basozainen parte hartzea gune ez urbanoetara mugatuko da. Habia suntsitzeko erabiliko duten metodoa tirokatzearena izango da. Metodo hau azken baliabide modura erabiliko da. Beraz, landa eremuan dauden eraikin eta instalazioen inguruan ez dituzte habiak suntsituko eta beraien parte-hartzea bideragarria denean, zuhaitzetan 15 metro baino gehiagoko altueran dauden habietara mugatuko da.

Beraz, habiak desaktibatzeko ardura duten eragileek, beraien baliabide propioekin habia ezin dutenean desaktibatu, Basozainek parte hartuko dute esandako baldintzak betetzen badira.

Basozainek habiak suntsitzeko garaian Udalen laguntza eskatu dezakete.

Basozainek habia bat suntsitzen dutenean, Nekagip web orriko “Liztor beltza” aplikazio informatikoan jarduna osatu eta itxiko dute.

3.4.5. Gipuzkoako Foru Aldundia

257/2004 Dekretua, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala (EZBEO) sortzen duena betez eta, batez ere, hirugarren xedapen gehigarriak emaniko eskumenak kontutan izanik, Gipuzkoako Foru Aldundia zerbitzu enpresa korporatibo bezala inskribatuta dago aipatutako erregistro ofizialean, liztor beltzaren (*Vespa velutina*) habiak desaktibatzeko 18 motako produktua erabiliz (*Erabakia, 2014ko abenduaren 19koa, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariarena, EZBEOn inskripzioa egiteko dena*).

Tratamendu biozidak egiteko gaitzeari buruzko araudi erregulatzailea ezartzen duen ekainaren 25eko 830/2010 Errege Dekretuan adierazten diren eginkizunak betetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak tratamenduen arduradun teknikoa izendatua du.

3.5. NEKAGIP WEB ORRIKO "LIZTOR BELTZA" APLIKAZIO INFORMATIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamenduak, Nekagip web orrian "Liztor beltza" aplikazio informatikoa prestatu du liztor beltzaren habien informazioa jasotzeko (http://www.nekagip.net/LIZTORBELTZA/).

Nekagip web orriko "Liztor beltza" aplikazio informatikora sartu ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuak, "Erabiltzailea" eta "Pasahitza" emango dio Udalerri bakoitzari. Erabiltzailea, Udalaren IFZ izango da eta Pasahitza Udal bakoitzari berea emango dio Zerbitzuak (Udalak liztor beltzaren larrialditarako izendatu duen pertsonak jasoko du bere posta elektronikoan).

Aplikazio informatikoaren erabilera ezagutzeko, Nekagip web orriko "Liztor beltza" aplikazio informatikoaren "Laguntza" atalean "*Erabiltzailearen eskuliburua*" eskuragarri dago.

Udalek, Landa Garapen Elkarteek, Suhiltzaileek eta Basozainek lehen habi eta bigarren habiei buruzko informazioa jaso behar dute jardunak osatuz; bai gune urbanoetan kokatuak daudenena baita gune ez urbanoetakoena, desaktibatzen dituzten habiena zein desaktibatuko ez dituztenena.

Jasotako informazioak bi erabilpen izango ditu:

1/ Habiaren desaktibatze prozesuaren kudeaketan parte hartzen duten eragileak koordinatzeko.

2/ Liztorraren hedapenaren eta abarren ikerketak egiteko. Datu guztiak Neiker laborategira eta beste erakunde batzuetara bidaliko dira.

3.6. LIZTOR BELTZAREN ZIZTADAK

Denboraldian zehar eragileek liztor beltzak gizakiengan eragindako ziztaden berri badute, horretarako prestatu den "Ziztada fitxa" osatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuari aurkeztea eskatzen da:

BASANIMALIEN ETA LANDAREEN ZERBITZUA
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa enparantza z/g
20004 Donostia
Tel. 943-113774
icarton@gipuzkoa.eus

"*Ziztadak jasotzeko fitxa*", Nekagip web orriko "Liztor beltza" aplikazio informatikoaren "Laguntza" atalean aurki daiteke.

Ikusi 2. ERANSKINA: LIZTOR BELTZAK ERAGINDAKO ZIZTADA FITXA.

3.7. EKITALDIAREN BUKAERA

Faktore biologikoak, eguraldiarenak eta eragileen iritziak aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuak bukatutzat emango du habiak desaktibatzeko ekitaldia; beranduena abenduaren 20a izango da.

Habiak desaktibatzeari utziko zaion egunaren data aurrez jakinaraziko da. Eta honekin batera Nekagip web orriko "Liztor beltza" aplikazio informatikoa itxiko da. Hala ere eta hurrengo urteko ekitaldiari begira, denboraldiz kanpo hutsik aurkitzen diren habien jardunak sartzeko aukera izango da.

4. HABIAK DESAKTIBATZEKO METODOAK

Habiak desaktibatzeko ardura izango duten eragileek ahal duten liztor beltzen habia gehien desaktibatzea izan behar dute helburu, betiere Protokoloaren esanak betez; halaber, jarduna egiterakoan beste espeziengan eragin kaltegarri kolateralak gutxitzea ere kontuan izan behar dute.

Ondorengo ataletan habiak desaktibatzeko erabili daitezken metodoen ezaugarriak, beharrezko materialak, derrigorrez hartu beharreko prebentzio neurriak eta prozedura biltzen dira.

4.1. LEHEN HABIAK DESAKTIBATZEKO METODOAK

Aurrez aipatu den bezala, lehen habiak neurriz eta intsektu kopuruz txikiak direnez, baliabide gutxi batzuk erabiliz desaktibatu daitezke sarritan.

Hala ere, lehen habiak desaktibatzeko garaian bi gauza kontutan izan behar dira:

1/ Habiaren morfologia ezagutu behar da; hots, beste espezieak duten habiengandik bereizten jakin; hartarako eskutara dauden baliabide guztiak erabiliko dira (triptikoak, herriko aldizkariak, gidaliburuak, etab.).

2/ Erreginak habiaren barnean egon behar du.

Lehen habia desaktibatzeko/kentzeko erabilgarriak diren metodoen artean aerosol erako biozidak, ontzi bat erabiltzea, salabardoaren teknika, mekanikoki zapaltzea eta ur berotan sartzea daude.

Ikusi 3. ERANSKINA: LEHEN HABIAK NOLA KENDU EDO DESAKTIBATU.

Hartu beharreko prebentzio neurriak hurrengo atalean (4.2.1. Haga edo pertika) biltzen dira.

4.2. BIGARREN HABIAK DESAKTIBATZEKO METODOAK

4.2.1. Haga edo pertika

4.2.1.1. Metodoari buruz

- Biozida habiaren barnean botatzeko erabiliko da.
- Gune urbano eta ez urbanoetan erabil daiteke.
- Habia behar bezala desaktibatu dela ziurtatu behar da; bizirik geratu diren liztorrek pertsonak ziztatzeko arriskurik ez dagoela bermatu behar da.
- Habia, biozida bota ondoren, bertan utz daiteke, horrela, kanpoan zebilenak sartzen direnean biozidarekin kutsatu eta hilko dira. Biozida bota ondoren habia kendu nahi izanez gero, lan hori gauez egin beharko da, bizirik geratu direnak barruan daudela ziurtatzeko.
- Desaktibatutako habia, eragileek bere kokapenetik kentzea erabakitzen badute (etxe baten sabaian, leihoan, etab. dagoelako), habia jaso eta dagokion moduan desagerraraziko dute; biozidaz kutsatuak daudenez ezin dira hondakin organiko modura tratatu, horren ordez, habia plastikozko poltsa lodi batean jasoko da (zulatu ez dadin) eta poltsa toki egoki batean erre egingo da. Sobratzen den biozida nahasketa ere egoki kudeatu behar da.

4.2.1.2. Materiala

- Liztorrak akabatzeko baimendutako produktu biozida likidoak.

  Ikusi 4. ERANSKINA: BIOZIDAK

- Pertika erabiltzaileak material egokiaz hornitu behar dira: haga edo pertika (8 metroko karbonozkoa edo 16 metroko aluminiozkoa); ponpa bultzatzailea (kontrol elektronikokoa

edo aurre presiokoa); pozoia botatzeko injektore, pita edo ahokoak; buzoa; eskularruak; oinetakoak, etab.

Ikusi 5. ERANSKINA: PERTIKAK / PONPA BULTZATZAILEAK.

Ikusi 6. ERANSKINA: JANTZIAK.

- Zenbait kasutan, habia oso altu badago eta lurretik haga erabiliz ezinezkoa bada iristea, gerturatzeko plataforma jasotzailea erabili daiteke, bertatik pertikarekin biozida habiaren barnean jaurtiz.

4.2.1.3. Prebentziozko neurriak

- Jarduera arriskutsuak badira bai langileentzat bai beste pertsonentzat, ez dira egin behar. Jarduerak arrisku gehigarria badakar, laguntza eskatu behar da, Protokoloak ezartzen duen bezala.
- Lan eremua hesitu egin behar da, zintaz, konoz edo antzekoez, oinezkorik sar ez dadin ziurtatuz.
- Errepidetik gertu egonez gero, hura itxi eta seinaleztatu egin behar da, indarrean dagoen Zirkulazio Kodearen arabera. Behar izanez gero, Udaltzaingoaren laguntza eskatu behar da.
- Lan eremua aztertu egin behar da eta ziurtatu arrisku gehigarririk ez dagoela, hala nola linea elektrikoak.
- Tentsioan dauden instalazio elektrikoen inguruan habiak desaktibatzea oso arriskutsua da eta lan istripu larriak gertatu daitezke, are gehiago baldintza atmosferikoak egokiak ez badira. Beraz, aurrez egoeraren azterketa sakona egitea beharrezkoa da: lan eremu segurua mugatzeko, segurtasun distantziak finkatu behar dira eta sekula ez gainditu. Habiaren desaktibatzea gutxienez bi lagunek egingo dute eta behar izanez gero, laguntza eskatuko dute.
- Kontutan izanda askotan habiaraino iristeko 20 metro baino luzera gehiagoko pertika erabili behar izaten dela, tentsioan dauden aireko linea elektrikoekiko segurtasun distantzia 30 metro edo gehiagokoa izatea eskatzen da. Hau da, aireko linea elektrikoaren eta habiaren arteko distantzia 30 metro baino gutxiagokoa bada, habia hori ez da pertikarekin desaktibatuko.

Eskaileraren erabilera

- Esku-eskailera bat erabili baino lehen, egoera onean dagoela ziurtatu behar da eta baztertu egin behar dira segurtasun bermeak ematen ez dituztenak.
- Esku-eskailerek beharrezko erresistentzia izan behar dute, baita bermatzeko eta eusteko elementuak ere, haiek erabiltzean langileari arriskurik ez

ekartzeko; euskarriek modu seguru batean finkatuta egon behar dute (modu egonkor eta erresistente batean).

- Fabrikatzaileak adierazitako eran eta ezarritako mugekin erabili behar dira. Ez da erabili behar bost metrotik gorako esku-eskailerarik.
- Esku-eskaileratik igotzea eta jaistea aurrez aurre egin behar da, hau da, zuzen begiratuz erabiltzen ari diren luzekako langei.
- Debekatuta dago langile batek baino gehiagok eskailera aldi berean erabiltzea.
- Eskailera baten gainean lanean aritzean, langileak ez du saiatu behar urruti dauden puntuetara heltzen, bere burua luzatzera behartuz, erortzeko arriskua baitu horren ondorioz. Eskailera behar adinbat aldiz mugitu behar da.
- Metalezko eskailerak eroale elektrikoak dira. Ez da gomendatzen halakoak erabiltzea edonolako zirkuitu elektrikoetatik gertu edo zirkuitu horiekin kontaktua egin dezaketen tokietan.
- Eskailera bikoitzak erabiltzen badira, altueraren erdi aldera, katetxo edo zinta bat izan behar dute, gehieneko irekidura mugatzen duena.

Plataforma jasotzailearen erabilera

- Plataforma erabili baino lehen, ziurtatu behar da sistema guztiek ondo funtzionatzen dutela eta erantsitako segurtasun gailu guztiek behar bezala lan egiten dutela.
- Errespetatu behar dira eranskailuetako arreta-neurri eta jarraibide guztiak, hau da, bastidore eramailean, besoan eta plataforman jarrita daudenak. Ez da gainditu behar gehieneko zama-edukiera nominala. Edukiera hori elementu hauen pisuaz osatuta dago: langileria, tresneria eta plataforman jarritako edo hari erantsitako elementu guztiak. Kargak modu uniformean banatu behar dira plataforma jasotzailearen zoruan zehar.
- Lan ekipo mota hauek, baimendutako eta behar bezala prestatutako langileek maneiatu behar dituzte. Ziurtatu behar da operadoreek oso ondo ulertzen dutela plataformaren maneiua. Horretarako, nahitaezkoa da erabilera-eskuliburua irakurtzea. Ez da utzi behar baimenik gabeko inork plataforma erabil dezan.
- Lan plataformak CE marka izan behar du eta fabrikatzaileak emandako jarraibideen arabera erabili behar da.
- Plataforman adierazi behar da jasan dezakeen gehieneko karga eta hori errespetatu egin behar da, gainerako oharrak eta jarraibideak bezala.
- Langileak beti eduki behar ditu bi oinak plataformaren zoruan, eta guztiz debekatuta dago plataformatik atera eta tarteko barretara igotzea.
- Nahitaez erabili behar da norbera babesteko ekipamendua, erorketen aurkakoa.
- Saskira igotzeko eta handik jaisteko, hark dituen baliabideak erabili behar dira; inoiz ez da salto egin behar saskitik lurrera; saskia jasota baldin badago, ez da erabili behar igotzeko gailurik edo sartzeko beste edozein sistemarik.

- Plataforma barruan, ez da erabili behar elementu osagarririk, eskailera modukorik, gorago igotzeko.
- Lurraren egonkortasuna egiaztatu behar da. Lur horizontalaren gainean bakarrik maneiatu behar da. Dena den, behar bezala erabili behar dira katu egonkortzaileak eta egiaztatu behar da fabrikatzaileek ezarritako arauen arabera zabaldu direla; gurpilek presio zuzenean puztuta egon behar dute.
- Maniobrak egin bitartean, ez da langilerik egon behar haren eragin esparruan.
- Makina mugitzeko aginteak maneiatu baino lehen, dorretxoaren posizioa egiaztatu behar da higidura-noranzkoari dagokionez.
- Plataforma beti mugimenduaren norabidean orientatuta jarri behar da. Pertsona batek gidatu behar du maniobra, oztoporen batek ikuspena galarazten badu. Aldez aurretik ikuskatu behar da plataforma mugitu behar den lurzorua eta behar izanez gero, oinez.

Pertikaren erabilera

- Pertika muntatzen hasi aurretik, ziurtatu behar da ez dagoela inor lan eremuan, istripurik izan ez dadin. Langile guztiei abisatu behar zaie zernolako lanak egin behar diren.
- Arreta berezia jarri behar zaio pertikaren muturrari, arriskua baitago ebakitzeko eta kolpeak hartzeko. Segurtasun eskularruak erabili behar dira.
- Pertikak, luzatzen dugun hainean karga handia hartzen joaten da. Pertikaren kontrola galtzen hasiz gero, askatu, bestela azpialdearekin kolpe handia jasateko arriskua izango dugu eta.

Produktu kimikoaren erabilera

- Produktua erabili baino lehen, arretaz irakurri behar dira segurtasun datuen fitxa eta etiketa, eta haren argibideei jarraitu behar zaie.
- Nahi gabeko kontaktua izanez gero, eskuak ur askorekin garbitu behar dira, 15 minutuz, gutxienez. Behar izanez gero, zipriztindutako jantziak erantzi behar dira. Nahi gabe ahoratuz gero, ezbeharra izan duena gertueneko ospitalera eraman behar da, eta ahal bada, etiketa edo ontzia ere eraman.
- Nahitaez erabili behar dira eskularruak, maskara eta aurpegi babesa.

NBE (Norbera Babesteko Ekipamendua)

- Liztor beltzaren aurkako jantzia: lan-jantzia, maskara, betaurrekoak, larruzko eskularruak.

4.2.1.4. Prozedura

- Lurretik lan egingo da, pertika habiara iristeko moduko tokietan.
- Habiaren desaktibatzea beti bi lagunek egingo dute.
- Ahal den liztor gehienak barruan daudela jaurti behar da biozida habiara.
- Biozida bota eta habia kokapenetik kentzea erabakitzen bada, kanpoan zeuden eta habiara bertaratzen diren liztorrak ere hil daitezen, habia kendu aurretik 24-48 ordu pasatzen uztea gomendatzen da.
- Habia kentzea erabakitzen bada eta habia zegoen lekuan arazoak sor ditzaketen liztorrak geratu badira, tranpak jartzea behar beharrezkoa da intsektu horiek harrapatzeko.
- Istripuak ekiditeko, lan hau egingo dutenek behar bezalako heziketa jaso behar dute.

4.2.2. Aerosolean erabilitako biozidak

4.2.2.1. Metodoari buruz

- Eskura dauden habiak desaktibatzeko erabiliko da, haga edo pertika beharrezkoa ez den kasuetan.
- Habiak ez du tamaina handiegia behar eta sarrerako zuloak irisgarria izan behar du.
- Normalean gune urbanoetan erabiltzen da: erakinak, instalazioak, etab.
- Metodo hau gauez erabili behar da, liztor guztiak habiaren barruan daudela.
- Aerosol erako biozida habiaren aldameneko zulotik aplikatuko da.
- Habia, eskuragarri izanda, biozida bota ondoren kendu egiten da.
- Eragileek kutsatutako habia jaso eta egoki kudeatuko dute, plastikozko poltsa lodi batean sartu ondoren leku egoki batean errez. Hustutakoan, aerosolaren ontzia ere behar bezala kudeatu behar da.

4.2.2.2. Materiala

- Liztorrak akabatzeko baimendutako aerosol erako biozidak.
- Linternak edo fokuak erabili behar badira, argi gorria izatea gomendatzen da, liztorrek ez dutelako ikusten. Argi arruntak liztorrak erakarri egiten ditu.
- Habia altu dagoen zenbait kasutan, bertaraino egoki iritsi badaiteke eta aerosol erako biozida zulotik botatzea posible bada, plataforma jasotzailea erabili daiteke metodo hau aplikatzeko.

INSECT IBYS:	PREVALIEN Aerosol:	PREVALIEN descarga total:	BAYER GARDEN descarga total:

4.2.2.3. Prebentziozko neurriak

Hartu beharreko prebentzio neurriak aurreko atalean (4.2.1. Haga edo pertika) biltzen dira.

4.2.2.4. Prozedura

- Gauez lan egingo da, liztor kolonia guztia habiaren barruan dagoela.
- Aerosol erako biozida habiaren aldameneko zulotik aplikatuko da, zuloa egoki estaliz liztorrak irten ez daitezen. Habia barruko furrundak minutu batzuk iraungo ditu, liztorrak hil arte.
- Kontutan izan behar da gau epeletan habiaren kanpoaldean liztor zaindariak aurki daitezkeela. Holakoetan azti ibili eta posible den heinean, aerosol erako biozidarekin lehen bai lehen ihinztatu.
- Desaktibatu behar den habia handia bada eta liztor ugari baditu, gerta liteke aerosol erako biozidak habia osoan eragina ez izatea eta liztor guztiekin ez akabatzea.
- Habia erretiratu eta behar bezala kudeatuko da.
- Habiaren desaktibatzea beti bi lagunek egingo dute.
- Istripuak ekiditeko, lan hau egingo dutenek behar bezalako heziketa jaso behar dute.

4.2.3. Tirokatu

4.2.3.1. Metodoari buruz

Habia suntsitzaile eragileek (Udalak, LGEk, etab.) habiak eskopeta tiroz suntsitzea nahi badute, tiratzaile taldea osatzeko honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Taldeetan Udaltzainek parte hartu behar dute eta onartuko da horiekin batera tiratzaileak egotea.
- Udaltzain arduradun bat izendatuko da eta taldea arduradun horren menpean egongo da. Taldekideek arma baimena eduki behar dute nahitaez, baita erabili behar dituzten armen dokumentazioa ere.
- Udaltzain arduradunak suntsitzen dituzten habia guztien informazioa jasoko du.

- Eragileek, habiak suntsitzeko baimena helbide honetan eskatu behar dute:

BASANIMALIEN ETA LANDAREEN ZERBITZUA

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa enparantza z/g

20004 Donostia

Tel. 943-113774

icarton@gipuzkoa.eus

- Eskaera horretan eragileak honako informazioa eman behar du:
    - Taldearen arduraduna (udaltzaina)
    - Partaideen izen-abizenak, NAN, helbidea eta telefonoa
    - Udalerriaren izena
    - Jardun behar den eremua eta denboraldia
- Eragileak, jarduera egin ahal izateko, taldekide guztiak aseguratu egin behar ditu.
- Foru Aldundiak habia suntsitzaile talde bakoitzari bere baimena emango dio. Baimenak honako baldintzak jasoko ditu:
    - Baimenak liztor beltzaren habiak suntsitzeko bakarrik balioko du; ezin izango da inolaz ere tiroa beste alde batera edo beste espezie bati bota.
    - Taldekideek arma erabiltzeko dokumentazio guztia indarrean izan behar dute eta gainean eraman behar dute.

- Jarduera egiteko segurtasun neurri guztiak hartu behar dira, arduradunak hori horrela dela bermatu behar du eta batez ere tiratzaileen eta tiro egiteko era egokia bilatu.
- Habia suntsitu aurretik arduradunak ziurtatu behar du liztor beltzen erasoen kontra tiratzaile guztiak ondo babestuta daudela.
- Arduradunak habia behar bezala suntsitu dela ziurtatu behar du eta bizirik geratu diren liztorrek pertsonak ziztatzeko arriskurik ez izateko neurriak hartu behar ditu.
- Suntsitutako habia guztien informazioa jaso eta bideratu egin behar du arduradunak Nekagip web orriko "Liztor beltza" aplikazio informatikoan sartzeko.

- Taldekideak habiak suntsitzeko oinarrizko heziketa hartzera behartuta daude.

4.2.3.2. Materiala

- Tiratzaile guztiek liztor beltzaren aurkako jantzia eraman behar dute.
- Eskopeta: 12-70 eta hobe 12-76. Egokienak "repetidora" eta "pajillera", kanoiaren luzera 66 zm., txokeak aldakorrak izanik, izar bat, hiru izar eta zilindrikoa.
- Munizioa 11/10/5 eta 1 draiak, 70-36g. eta 76-50 g.:
  - Basozainek erabiliko duten materiala erosteko eta ordaintzeko ardura Foru Aldundiarena izango da.
  - Eragileek antola ditzaketen habia suntsitzaile taldeen materialak erosteko eta ordaintzeko ardurara beraiena izango da.

4.2.3.3. Prebentziozko neurriak

- Beste metodorik erabiltzea ezinezkoa den kasuetan bakarrik erabili behar da jardunbide hau.
- Jarduera arriskutsuak badira bai langileentzat bai beste pertsonentzat, ez dira egin behar.
- Jarduerak arrisku gehigarria badakar, laguntza eskatu behar da, Protokoloak ezartzen duen bezala.
- Lan eremua hesitu egin behar da, zintaz, konoz edo antzekoez, oinezkorik sar ez dadin ziurtatuz.
- Errepidetik gertu egonez gero, hura itxi eta seinaleztatu egin behar da, indarrean dagoen Zirkulazio Kodearen arabera. Behar izanez gero, Udaltzaingoaren laguntza eskatu behar da.
- Lan eremua aztertu egin behar da eta ziurtatu arrisku gehigarririk ez dagoela.
- Tiro egin baino lehen, ziurtatu behar da ez dagoela inor esparruaren barruan.
- Denak lerroan jarri behar dira, inoiz ez zirkuluan, kalterik izan ez dadin.
- Ertzaintzari jakinarazi noiz eta non egingo den.

NBE (Norbera Babesteko Ekipamendua):

- Liztor beltzaren aurkako jantzia: lan-jantzia, maskara, betaurrekoak, larruzko eskularruak.

4.2.3.4. Prozedura

- Habia ahal bezain azkar suntsitu behar da; angelu desberdinetatik bizpahiru eskopeta batera tiroka eta tiro asko batera botata. Helburua barruan dauden ahalik eta liztor gehienak hiltzea da.
- Ahal den liztor gehien barnean harrapatzeko, habia goizeko lehen orduan edo iluntzean suntsitu behar da.
- Erortzen diren habia zatiak jasotzen saiatu behar da, batez ere zati handiak badira eta inguruan jendea ibiltzen bada. Zati horiek bizirik geratu diren liztorrak erakarri ditzakete. Babes neurri zorrotzak hartzea beharrezkoa da.
- Bizirik geratu diren liztorrek gizakia ziztatzeko arriskua suposatzen badute tranpak jarriko dira.

4.2.4. Metodo berriak

Azken aldian liztor beltzaren habiak desaktibatzeko metodo berrien berri izaten ari gara, dronen erabilera adibidez eta paintballeko eskopeta bidez jaurtitako biozida puxtarrien kasua.

Horrelakoetan kontutan izan behar da erabiltzen diren biozidak eta metodoa bera baimenduta izan behar dutela eta besteak beste, tratamenduaren eraginkortasuna, kostua, etab. Beraz, ezer egin aurretik Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuari kontsulta egitea eskatzen da:

BASANIMALIEN ETA LANDAREEN ZERBITZUA
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa enparantza z/g
20004 Donostia
Tel. 943-113774
icarton@gipuzkoa.eus

5. TRANPAK

5.1. UDABERRIKO ERREGINEN TRANPAK

Erreginak, udaberri hasieran dira harrapagarriak; erregina galduz gero, habiako bizidunak galduta daude eta ziklo biologikoa moztuta geratuko da. Beraz, bigarren habia kopurua murriztu egingo da eta ondorioz, kalteak gutxitu egingo dira.

Erreginak harrapatzeko tranpak erabiliko dira, gailuak erakargarriekin.

5.1.1. Eskaera baldintzak

Tranpak jartzearen ardura, jarduna egiteko borondatea duen erakunde eragilearena izango da, hots, Udalak, Landa Garapen Elkarteak eta Gipuzkoako Erlezain Elkarteko kideak. Garrantzitsua da eragile ezberdinen arteko harremana eta koordinazioa. Inoiz ez dira jarriko kontrolik gabeko tranpak.

Tranpak jartzeko asmoa duten eragileak baimena eskatzeko hona zuzendu behar dira:

BASANIMALIEN ETA LANDAREEN ZERBITZUA
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa enparantza z/g
20004 Donostia
Tel. 943-113774
icarton@gipuzkoa.eus

Tranpak jartzeko eskaera egiten duen eragileari, honako datuak eskatuko zaizkio:

- Erakunde edo elkarte arduraduna.
- Erakunde edo eragile eta arduradunaren datuak: Izen abizenak, NAN, helbidea, harremanetako telefonoa eta posta elektronikoa.
- Tranpak jarriko diren tokien erreferentzia: herria eta lekua. Erlezainen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko datu basean alta emanda dauden erlatokien datu berak eskatuko dira.
- Leku bakoitzean jarriko diren tranpa kopurua.
- Tranpak noiz jarri eta noiz kenduko diren (normalean jarri martxoan eta kendu apirilean).

Tranpak jarriko dituen erakunde eragileak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuko arduradunaren baimena izan behar du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuak, baimena ematerakoan, bete behar hauek exijituko dizkio eskaera egin duen eragileari:

- Tranpak, eragilearen izena edo logotipoaren bidez identifikatuta jartzea (Udalaren izena, Landa Garapen Elkartearen izena, Gipuzkoako Erlezain Elkartea, etab.).
- Tranpak, soilik baimendutako denboraldian jarrita izatea eta harrapaketa bukatu ondoren berehala kentzea.
- Tranpak gutxienez astean behin errebisatzea.
- Tranpak errebisatzerakoan liztor beltzaren erreginen kopurua eta bertakoena (liztortzar europarra eta bestelakoak) apuntatzea.

Erreginak harrapatzeko baimena eskatu duen eragileak, harrapaketa bukatu ondoren, honako informazioa bidali behar dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen zerbitzuari:

- Baimenaren datuak: erakunde eragilearen izena eta tokien erreferentzia.
- Harrapaketaren emaitzak: liztor beltzaren erreginak eta liztortzar europar eta bestelakoen erreginak.

Ikusi 7. ERANSKINA: LIZTOR BELTZAREN ERREGINAK HARRAPATZEKO TRANPEN FITXA.

5.1.2. Beste baldintzak

Betidanik gure lurretan izan diren beste intsektu batzuk ere erortzen dira tranpa hauetan eta bizidun hauek bere funtzioa betetzen dute naturan; beraz, ahal den heinean kalte kolateralak ekiditea helburu izan behar du. Hauen artean, aipatu liztortzar europar edo kuruminoaren (*Vespa crabro*) erreginak negutik apirila bukaera aldera irteten direla eta tranpetan ez harrapatzea garrantzitsua dela.

Erreginak harrapatzeko tranpak jartzea bereziki garrantzitsua da liztor beltzen jazarpen handia dagoen erlategien inguruan, gune urbanoetan edota iraganean liztor habia asko izan den guneetan. Kontutan izan behar dira aurreko ekitaldian desaktibatu gabe gelditutako habiak eta desaktibatzeko garaian aktibitate gutxi zuten habiak. Baita ere, aurreko urtetan erregina asko harrapatutako tranpak eta loraldian dauden landaretza guneak.

Tranpak jendeak eskuera ez izatea ziurtatzea garrantzitsua da. Horretarako, ahal den neurrian tranpak ezkutatu eta altueran jarri, adarren batean zintzilikatuta.

Kontrolatu gabeko tranpatzeak ekiditea helburu izan behar du.

Eragileen arteko harremanari garrantzia berezia eman behar zaio (Udalak, Landa Garapen Elkarteak, Gipuzkoako Erlezain Elkartea, etab.).

Erreginak harrapatzeko tranpatzeari ez zaio komunikabideetan propagandarik egingo.

5.1.3. Gailuak

Erreginak harrapatzeko erabiliko diren gailuak, norberak egindakoak edota komertzialak izan daitezke, beti kontuan hartuta beste intsektu espeziengan ahal den eragin kaltegarri gutxien sortu behar dutela. Horretarako, gailuaren formak, sarrera irteeren neurriak eta abarrek, helburu ez diren intsektuak ez sartzea eta bere kasuan, irteera erraztea bete behar dute.

Ikusi 8. ERANSKINA: TRANPAK.

5.1.4. Erakargarriak

Erreginak harrapatzeko gailuetan erabiliko diren erakargarriak etxean egindakoak (garagardoa, ahabi siropea eta ardo zuria) edo produktu komertzialak izango dira.

Ikusi 9. ERANSKINA: ERAKARGARRIAK.

5.2. UDA ETA UDAZKENEKO LANGILEEN TRANPAK

Liztor langileak tranpen bidez harrapatzeko arrazoiak ezberdinak izan daitezke:

- Bereziki erlategietan, erleengan egiten duten presioa gutxitzeko.
- Behin betiko habia bat egunez desaktibatu ondoren inguruan langileak gelditzen direnean, gizakiarentzat arriskua sortuz.
- Segurtasun arazoak: intsektuak ikusten ditugunean baina habiaren kokapena ikustea ezinezkoa zaigunean.

Eskaera baldintzak, tranpatze denboraldia ezik, udaberriko erreginen tranpetako berdinak izango dira. Normalean, langileen tranpak abuztutik aurrera jartzen dira eta erlezainek erabiltzen dituzte erlategietan Gipuzkoako Erlezain Elkartearen bitartez. Gogoratu tranpak jarriko dituen erakunde eragileak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Basanimalien eta Landareen Zerbitzuko arduradunaren baimena izan behar duela.

Beste baldintzak ere, orokorrean, udaberriko erreginen tranpetako berdinak izango dira. Hala ere, beste intsektuengan sortutako kalteak kontutan izatekoak izanda, ez dira udaberriko tranpatzean bezalako gogorrak.

Gailuak eta erakargarriak ere berdinak izan daitezke. Langile batzuk tranpan utzi daitezke amu moduan.

5.3. HABIA TIROKATU ONDORENGO TRANPAK

Aurrez, 4.2.2. “Tirokatu” atalean aipatu da, tiroz suntsitutako habian bizirik geratu diren liztorrek gizakia ziztatzeko arriskua suposatzen badute, tranpak jarriko direla.

Tranpa hauek (bat edo gehiago, beharrezko ikusten bada) suntsitutako habia zegoen lekuan edo ahal bezain gertu jarriko dira.

Tranparen barruan habi zatiak eta lurrera eroritako liztor batzuk sartzea da eraginkorrena. Hau egitea ezinezkoa bada, garagardo pixka batek ere balio dezake (100ml).

Tranpa adarretik zintzilik jartzeko kanabera edo hodi teleskopiko bat erabil daiteke.

Hurrengo egunean tranpa jaso eta suntsitu egin behar da.